

Tourra

Euskaltzaindiaren

Hiztegian



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



UZEI

Terminologia
eta Lexikografia
Zentroa

aitzinetapa

iz. Txirrindularitzan eta kideko beste zenbait kirolean, itzuli handi bateko hasiera-etapa, eskuarki motza eta erlojupekoa, lehen sailkapena egiteko antolatzen dena. *Gipuzkoako Itzulia bihar hasiko da Aian, eta 2,7 kilometroko erlojupekoa izango dute aitzinetapa gisa.*

balazta

iz. Ibilgailu edo tresna bat geldiarazteko edo haren abiadura moteltzeko tresna. *Balazta sakatu nuen barru-barruraino.*

bizikletadun

iz. Bizikletaria. *On Camillo erretzen ari zen apaizetxe aurreko jarlekuan eserita, bizikletadun bat ziztuan heldu zenean.*

bizikletari

iz. Bizikletan ibiltzen den pertsona. *Errepidean, bizikletaria arriskuan da beti.*

denbora

3 iz. Kirolean, lasterketa bat edo kideko ariketa bat hasi eta amaitzeko behar izan den denbora-tartea. *Eugeni Berzin errusiarra izan zen onena, ordu bete, 13 minutu eta 59 segundoko denbora eginez. Ziabogan, Oriorena zen denbora onena.*

dopatu, dopa, dopatzen

1 da/du ad. Kirol lehiaketa batean eraginkortasuna hobetzeko, legez kanpoko gai suspergarriren bat hartu edo harrarazi. *Frantziako txapeldun ohiak salaketa jarri dio Federazioari, dopatzera behartu zutelako.*

dopatze

1 iz. Kirol lehiaketa batean eraginkortasuna hobetzeko, legez kanpoko gai suspergarriren bat hartzea edo harraraztea. *Bere gainean, aldiz, badira, euli beltzen gisa, dopatze susmo handiak.*

dopin

iz. *Kirol*. Dopatzea. *Ezusteko dopin kontrola egin diote txirrindulariari. Dopinaren kontrako borroka.*

erlojupeko

iz. Zenbait kiroletako, bereziki txirrindularitzako, lasterketa mota, kirolariak edo kirolari taldeak, banan-banan txandakaturik ateraz, ibilbide jakin bat egiteko behar duten denbora neurtuz egiten dena. *Espainiar txirrindulariak distantzia handiko erlojupekoetan duen maila erakutsi zuen atzoko garaipenarekin.*

eroriko

iz. Erortzea. *Eroriko handi bat egin zuen eta itsuski kolpatu zen. Eroriko bat hartuta, zangoak elbarrituta zeuzkan. Adamen erorikoa. Urrutiko arrantzaren erorikoarekin. Inperioaren sortzea, goraldia eta erorikoa.*

eskuleku

2 iz. Bizikletetan eta motorretan, eskuak jartzen diren tokia, gidatzeko erabiltzen dena. *Bizikletako eskulekuan saski bat zeraman zintzilik.*

esprint

iz. Lasterketetan, abiadura handieneko unea, bereziki helmugara heltzean gertatzen dena. *Petacchik ohi baino urrunago ekin zion esprintari atzo, helmugako marra 200 bat metrora zegoenean, baina ondo, indartsu eutsi zion erritmo aldaketari.*

esprinta jo

Esprintari ekin. *Behar zen mementoan, behar zen lekuan jo zuen esprinta txirrindulariak; eskuinetik atera zitzaion erbia bezala.*

esprintatu, esprinta/esprintatu, esprintatzen

du ad. Lasterketetan, abiadurarik handienez laster egin, bereziki helmugara heltzean. (*nor osagarririk gabe*). *Baina Valverde, lasterketaren azken unean, esprintatu eta bigarren amaitu zuen.*

esprintean

adb. Lasterketez mintzatuz, abiadura handiengan, bereziki helmugara heltzean. *Korrika bizian ekin zion, berrogei metro esprintean. Lehenago hasi da esprintean, eta ezin izan diot aurrea hartu.*

esprinter

iz. Esprintean trebea den lasterkaria. *Esprinter ona. Gaurko etapa aproposa da esprinterrak zigortzeko, helmuga aldats gora baita.*

etapa

2 iz. Ibilaldi batean, geldialdien arteko zatia. *237 kilometroko etapa da gaurkoa eta lau mendate ditu.*

flakia

iz. *Batez ere Gip. Herr. Ahultasuna, indarrik eza, batez ere luzaroan jan gabe egoteak eragina. Flakiarekin ezin mugitu du hanka. Usain gozoa zegoen tokitik nekez joango zen flakian. Flakiak nago, ez al da ardo gozorik?*

gurpil

iz. Pieza biribila, ardatz baten inguruan bira daitekeena; bereziki, ibilgailuek higitzeko dituztenetako bakoitza. *Gurdiaren gurpil beteak. Gurpil barne-hutsen izpiak eta uztaia. Bi gurpileko ibilgailuak. Erlojuaren gurpilak. Gurpil horzduna.*

hagun

iz. Gurpilaren metalezko egitura, pneumatikoaren euskarri dena. *Garbitu bizikleta zapi busti batekin eta egiaztatu gurpilak behar bezala lerrokatuta daudela eta hagunak zentratuta.*

helmuga

1 iz. Lasterketa baten ibilbidea amaitzen den lerroa. *Helmuga marra. Helmugako xingola.*

helmugaratu, helmugara/helmugaratu, helmugaratzen
da ad. *Kirol*. Lasterketetan, helmugara iritsi. *19 txirrindulari helmugaratu ziren denbora berean. Helmugaratzen lehena Mikel Astarloza izan zen.*

igotzaile

iz. *Kirol*. Txirrindularitzan, bide malkartsuak igotzeko gaitasun handia duen txirrindularia. *Azken urteetako igotzaile onena izan da Pantani.*

ihes egin

2 *Kirol*. Lasterketa batean, bereziki txirrindularitzan, gainerako lasterkariei aurrea hartu eta talde edo tropeletik urrundu. *38. kilometroan ihes egin zuen atzo Iñigo Landaluzek. Amateur mailan hamabi garaipen lortu ditut tropeletik ihes eginda.*

ihes

3 iz. *Kirol*. Lasterketa batean, bereziki txirrindularitzan, gainerako lasterkariei aurrea hartu eta talde edo tropeletik urruntzea. *Iheserako asmoz zeuden txirrindulariei aurreko bi egunetan baino gehixeago kostatzen zitzaizkien tropelaren oreka haustea. Crosbie frantziarrak 190 kilometro egin ditu ihesean Paris-Nizan. [Oharra: ihesari eman, Hegoaldean, dio aditza da (inor ohartu baino lehen ihesari eman zion) eta zaio, Iparraldean (harekin diren guztiak emanen zaizkio ihesari)].*

ihesaldi

2 iz. *Kirol*. Lasterketa batean, bereziki txirrindularitzan, gainerako lasterkariei aurrea hartu eta talde edo tropeletik urruntzea; horren ondorioa. *Zortzi minutuko aldea izan zuen ihesaldiak. Mallorcako bide bihurriek ihesaldietarako aukera ederrak eskaintzen dituzte.*

iheskide

iz. *Kirol*. Lasterketa batean, bereziki txirrindularitzan, norbaitek ihesean lagun duen lehiakidea. *Sylvain Chavanelek irabazi du 19. etapa, Jeremy Roy herrikide eta iheskideari esprintean irabazi ostean. Iheskideak atzean utzi eta indartsu aritu zen De Gendt, baina helmugarako lau kilometro falta zirela irentsi zuen tropelak.*

iheslari

3 iz. *Kirol*. Lasterketa batean, bereziki txirrindularitzan, gainerako lasterkariei aurrea harturik, talde edo tropeletik urruntzen den lasterkaria. *Hamaika minutuko alde lortu zuten iheslariak 117. kilometroan. Bi iheslarien atzetik sartu zen tropel nagusia, 25 segundora.*

itzuli

4 iz. Txirrindularitzan eta kidekoetan, lurralde batean zehar egiten den etapakako norgehiagoka. *Mallorcako Itzuliko bigarren etapa irabazi du esprintean. Petacchik 24 garaipen lortu zituen iaz, horietatik 15, itzuli handietako etapak.*

kasko

1 iz. Burua kolpeetatik babesteko erabiltzen den burukoa, bereziki metalezkoa. *Beti ibilbide bera egin behar izaten genuen, eta beti kasko urdina jantzita.*

kate

2 iz. Elkarri loturik dauden metalezko piezen segida itxia, lotura gisa edo energia mekanikoa transmititzeko erabiltzen dena. *Bizikletaren katea.*

kronoigoera

iz. *Kirol*. Txirrindularitzan, aldapan gora egiten den erlojupekoa. *25 kilometroko kronoigoera gogorrean aurkariak baino erritmo biziagoa ezarri zuen hasieratik txirrindulari gazteak.*

kulot

2 iz. Kirola egiteko galtza motz estuak, ehun elastiko batez eginak direnak, bereziki bizikletan ibiltzeko janzten direnak. (Singularrean nahiz pluralean). *Kulot onak eramatea garrantzitsua da, bizikletaren eserlekua gogorra da eta.*

lasterketa

iz. Laster egitea; bereziki, laster eginez leku jakin batera lehenengo heltzen denak irabazten duen norgehiagoka. *Lasterketaren irabazlea. Lasarteko zaldi lasterketak. Zama-jasotze, lasterketa edo aizkora-jolasa.*

lohi babes, lohi-babes

Ibilgailu gurpildunetan, gurpilen gaineko pieza, ibilgailua ur edo lohi zipriztinetatik babesten duena. *Bizikletari begira egon nintzen pixka batean; ez zirudien oso hondatua, katea irtena eta lohi babesa okertua besterik ez nion ikusten. Remigio eta Luis ikusi zituen kanpoan kamioi zaharraren lohi-babesa askatzen.*

maillot

iz. Kirol elastikoa, bereziki txirrindulariek erabiltzen dutena. *Egiten zuen hotzarekin, maillot bat eta galtza gorriak, belaunetaraino jasoak, zeramatzan. Berak jantzi beharko zukeen liderraren maillota. Tourreko maillot horia soinean duela.*

pedal

iz. Oinaz eragiten zaion palanka edo bestelako atala. *Bizikletaren pedalei eragin. Pianoaren pedalak.*

pedalkada

iz. Pedalari eragiten zaion aldietako bakoitza. *Dotorea zen bizikleta gainean, indartsua pedalkada bakoitzean, eta ausarta, oso ausarta mugimendurik zailenetan. Euskadi taldeak 1994an eman zituen lehen pedalkadak, Txomin Perurena zuzendari zela.*

pelotoi

1 iz. *Kirol.* Tropela.

piñoi

iz. Engranaje bateko gurpil txiki horzduna, bereziki bizikletaren kateak atzeko aldean izaten duena. *Lasterketak luzeagoak zirenean, bi piñoiko bizikletak erabiltzen zituzten txirrindulariek. Hamabost hortzeko piñoia.*

tropel

2 iz. *Kirol.* Txirrindulari lasterketetan, lasterkari gehienak doazen taldea. *Tropela oso urrun zuen, bost minutura, eta garaipena eskura zuela zirudien.*

tropelean

adb. Samaldan. *Ardiak tropelean etorri dira. Tropelean iritsi dira helmugara.*

tubular

iz. *Heg.* Bizikletaren pneumatiko mota, barneko hodirik behar ez duena eta uztaiari itsatsia jartzen dena. *Bizikletaren kontrola galdu, balazta gehiegi zanpatu, tubularra bere lekutik atera... zergatiak ez du garrantzirik dagoeneko.*

txakalaldi

iz. *Heg. Kirol.* Ahulaldia; bereziki txirrindularitzan, bat-bateko ahulaldia, gehiegizko ahaleginaren ondorioz odolean glukosa jaistek eragina izaten dena. *Baina bat-batean, eta inork espero ez zuenean, iruindarrak egundoko txakalaldia izan zuen.*

txirrindulari

iz. Bizikletan ibiltzen den pertsona; bereziki, txirrindularitzan aritzen den kirolaria. *Txirrindulari batek harrapatu zuen. Txirrindulari txapelketa.*

txirrindularitza

iz. Bizikletarekin egiten den kirola. *Goi mailako txirrindularitza.*

ziklismo

iz. Txirrindularitza.

ziklista

iz. Txirrindularia.

Eguneratze-data: 2023-06-13



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Terminologia
eta Lexikografia
Zentroa